

# Cumpliendo

*Espainiako Gobernuaren kontuak  
emateari buruzko txostena*

2021eko uztaila

Euskadi



GOBIERNO  
DE ESPAÑA





## Estatu mailako konpromisoen betetze-mailaren balantzea

- 38,2% Gobernuak, guztira, 1.463 konpromiso hartu ditu bere gain. Horietatik dagoeneko %32,8 bete ditu eta 2021eko bigarren seihilekoan %38,2ra iristea aurreikusten da.
- Betetako konpromisoak lanean ari diren konpromisoei gehitzen bazaizkie, Gobernuak guztizkoaren dagoeneko %93,8 aktibatu duela ondorioztatzen da.
- 1.463 konpromisoetatik 428 PSOEk eta Unidas Podemos-ek sinatutako akordiotik datoz, eta horietatik %33,4 beteta daude.
- Orain arte, 10 konpromiso baino ez dira bertan behera geratu, guztizkoaren %0,7

Taula. Estatu mailako betetze-balantzea.

Konpromiso-iturria [Konpromiso-kopurua]	Ekainak 21an betetako konpromisoak	Abenduak 21an betetako konpromisoen aurreikuspena
Guztira [1.463]	%32,8	%38,2
Inbestidura hitzaldia [239]	%38,1	%46,9
PSOE-UP koalizio aurrerakoaren akordioa [428]	%33,4	%41,6
Beste inbestidura-akordio batzuk [161]	%31,1	%34,2
BETEPkin lotutako konpromisoak [317]	%16,4	%21,8
Beste iturri batzuk [696]	%39,2	%43,7



## Euskadiko jarduera nagusiak, COVID-19K eragindako larrialdi ekonomiko, sozial eta sanitarioarekin lotuta

### Langileei eta enpresei laguntzea

- Hilean, batez beste, **42.022 euskal herritarrek** baliatu dute **ABEEen luzapena, 127,6 milioi** euroko zenbatekoaz.
- **218,0 milioi** euro **langile autonomoentzako** eta pandemiak gehien kaltetutako sektore ekonomikoetako **enpresentzako** zuzeneko laguntzetarako erabili dira.
- **5 enpresak** Estatuko Administrazio Orokorrak berme-dispentsazko emandako laguntzak edo maileguak itzuli eta/edo itzultzearen ondoriozko **zor publikoak**, ez tributuzkoak edo aduanakoak, **geroratzeari eta/edo zatikatzeari** onura atera dizkiote.
- **622 enpresak 323,2 milioi** euroko **ICO** abalak lortu dituzte urtarriletik; honekin, dagoeneko **6.737,3 milioi** euro bideratu dira **19.053** euskal enpresari abala ematera **ICO COVID-19 linearen** bidez.
- **278,1 milioi** euro erabili dira beren jardueran pandemiaren eragina jasan duten **langile autonomoentzako aparteko prestazioetarako**, eta 11.122 milioi euro laguntza horien hedapenez baliatu dira.
- **613 hartzailek 1,4 milioi** euroko **aparteko sorospena** jaso dute hilean batez beste 2021eko lehen seihilekoan, lehen alarma-egoeran langabeziagatiko prestazioa agortutakoan.
- **Aldizkako kontratu finkoa duten 311 euskaldun**, hilean batez beste, kolektibo horrentzat hainbat modalitatetan hartutako ohiz kanpoko neurripean babestu dira, **1,4 milioi** euroko zenbatekoan.
- Aparteko laguntzako **46,6 milioi** euro bideratu da EAEko toki-erakundeen titulartasuneko **garraio publikoko zerbitzua ematen duten** eta krisiaren ondorioz diru-sarrerak murriztu zaizkien operadoreetara.



## Osasun-materiala eta ezohiko jarduerak

- **1,5 milioi maskara kirurgiko** eman dizkiete **gizarte-erakundeei** Euskadin, euskal biztanleria-kolektibo ahulenei zuzenduta.
- Autonomia-erkidegoari COVID-19ren aurkako **txertoen 2.197.730 dosi** entregatu zaizkio abenduaren 27an Txertaketa Plana hasi zenetik.
- Gizarte Segurantzaren mutualitate laguntzaileetako **erizaintzako 392 profesional** gehitu dira **txertaketa-prozesuan laguntzeko**, pandemiaren aurka borrokatzeko baliabide pertsonalak eta materialak eskura jartzea arinduz.

## Espainiako Gobernuaren ekimen nagusiak Euskadin

### Dinamizazio eta bultzada ekonomikoa

Euskadik honako hauek jaso ditu:

- **2.480,9 milioi euro zorpetzeko.**
- **ENISA 6 mailegu, 1,3 milioi** eurokoak, ETEEen proiektuei finantza-laguntza emateko, haien lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sortzen laguntzeko.

### Gizarte-kohesioa

- nk jaso dute **gutxieneko bizi-diru sarrera**: 19.954 helduk eta 6.255 adingabek.
- **510.657 pentsiodunek** 2021eko KPIaren araberrako **pentsioen errebalorizazioa** jaso dute.



- **46.502** pertsonak baliatu dituzte **amatasun-osagarria** eta/edo **pentsioetako genero-arraila murrizteko osagarria**.
- **119.622 langile publikok** % 0,9ko **lansari-igoera** izan dute.
- **43.222 pertsonak 442.493 euroko** balioa duten **665,8 tona** elikagai jaso dituzte **Pertsona behartsuenei Elikadura Laguntzeko 2021 Programaren** lehen fasean.
- **68.430 litro oliba-olio** eman zaizkie Euskadiko biztanleei, **Egoera ahulenean dauden pertsonak oliba-olioz hornitzeko elikadura-laguntzako programan**.
- **1,1 milioi** euro bideratu dira "**Espainiak babesten zaitu**" plana garatzeko, **Sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko zentroak** sortzeko.
- Konektibitate duten **8.366 ekipo informatiko** banatu zaizkie ikasle ahulenei, **Educa en Digital** programaren bidez.
- **Ia 13 milioi** erabili dira euro **Lanbide Heziketa Modernizatzekeo Plana** bultzatzeko.
- **16,2 milioi** euro bideratu dira Euskadiko unibertsitatera, **Espainiako unibertsitate-sistema birkualifikatzeko**.
- **51.376 pertsonak** baliatu dute **bonu sozial termikoa**.
- **32,2 milioi** euro banatu dira euskal herritarrentzako **zaintza-politiken** proiektuak finantzatzeko, hiru ildotan: iraupen luzeko zainketak, gizarte-zerbitzuak eta irisgarritasun unibertsala.
- **1,0 milioi** euro entregatu dira **Justizia 2030ren "Proyecto 0"** egiteko, honako helburu hauekin: hurbiltasun digitala, lanpostua deslokalizatua, herritarrei arreta emateko aurretiko hitzordua eta Zibersegurtasuneko jarduerak.



- PACen eremuan:
  - **7.765 pertsonak** jasoko dute **PACen kudeaketa elektronikoa sinplifikatzeko** proiektuaren onura
  - **61 pertsonak** jaso dituzte 2020ko kanpainari dagozkion **oinarrizko ordainketarako eskubideak**; horrek esan nahi du autonomia-erkidegoak **112.256 euro** banatu dizkiela nekazaritza-jarduera hasten duten nekazariei.
  
- **Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa** inauguratu da Vitoria-Gasteizen.

### **Lurralde-kohesioa eta azpiegituren garapena**

- **28,8 milioi** euro erabili dira **Bilboko Portuko** Agintaritzaren Bilboko portuko AZ-1 kaia luzatzeko eraikuntza-proiektua gauzatzeko.
  
- **Euskadiri eskumen berriak eskualdatu zaizkio** honako gai hauetan: espetxeen kudeaketa, errepideko garraioa, argitalpen seriatuak identifikatzeko nazioarteko kodeak ematea (ISSN) eta Ondarroako Portuko Itsas Barrutiaren egoitza izandako eraikina.
  
- **Segurtasun Batzordea** egin da **Barne Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Polizia Nazionalaren, Guardia Zibilaren eta Ertzaintzaren arteko akordioak berritzeko.**
  
- **Antzinako Aduanaren eraikina inauguratu da** Bilbon.



– **Hainbat trenbide-inbertsio** egin dira eta garatzen jarraitzen da:

- **63,8 milioi euro** abiadura handiko trazadura eraikitzeko.
- **7,0 milioi euro** inbertitu dira geltokietako jarduketetan, hala nola nasen arteko pasabideak babesteko, aldiriko lineak hobetzeko eta terminal intermodaletarako sarbideak hobetzeko.
- **27,6 milioi euro** Bilboko Zorrotza auzoan trena lurperatzeko hitzarmenean.
- **29,7 milioi euro** trenbideko mantentze-lanetan.
- **59,0 milioi euro, Astigarraga eta Irun artean zabalera estandarra** ezartzeko obretarako. Obra horrek 34 hilabeteko iraupena izango du, eta abiadura handiko linea berriari jarraipena ematea ahalbidetuko du: Gasteiz-Bilbo-Donostia-Frantziako muga.

– **Aireportuko** azpiegituretan:

- **12,0 milioi euro** Loiuco aireportuko eraikin berri bat egiteko, langileei ostatu emateko
- **4,0 milioi euro, Vitoria-Gasteizko aireportuko obretarako.**

Bereziki, terminalaren birmoldaketa, bidaiarientzako espazioa eta kontrol-guneak handitzeko aukera eman duena; eta obrak 'handling' konpainien ekipamenduen aparkalekuan.

**Trantsizio ekologikoa, ingurumenaren babesa eta berrikuntzari laguntzea**

Euskadik honako hauek jaso ditu:

- **81,6 milioi euro industria-sektoreko energia-efizientziako jardueretarako, bai eta bizitegi-eraikinak eraberritzeko ere.**
- **37,2 milioi euro** energia-iturri berriztagarriak dituzten autokontsumoari eta biltegitratzeari lotutako zenbait pizgarri-programa gauzatzeko bai eta bizitegi-sektorean sistema termiko berriztagarriak ezartzeko laguntzetarako ere.





- **148.970 euro nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan** energia aurrezteko jarduerak garatzeko diru-laguntzetarako
- **33,3 milioi euro Industria Garapen Teknologikorako Zentroaren (CDTI)** enpresa-izaerako I+G+b proiektuetarako laguntzetarako, **70 proiektu** finantzatzeko.
- **MOVES III Planeko 18,7 milioi euro** mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarri-programak gauzatzeko.
- Euskadik **Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 4. eta 5. osagaien** konturako kredituen lurralde-banaketatik honako hauek jaso ditu:
  - **3,5 milioi euro lurreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzeko, ekosistemak eta azpiegitura berdea leheneratzeko eta baso-kudeaketa jasangarrirako.**
  - **0,8 milioi euro Espainiako Biosfera Erreserbetarako.**
  - **4,1 milioi euro** bideratu dira **Udalerrri txiki eta ertainetako sareen Hornidura hobetzeko eta galerak murrizteko planera**. Gutxi gorabehera **8.155 biztanleri** eman die onura.
- **308.524 euro** banatu dira **baso- eta nekazaritza-ekosistemetan klima-aldaketarako egokitzapena** sustatzeko eta laguntzeko, PIMA Ecosistemen bidez.
- **13,7 milioi euro** erabili dira **hondakinei buruzko araudia, Ekonomia Zirkularreko Programa eta Ingurumena Bultzatzeko Plana-PIMA Hondakinak** ezartzeko laguntzetarako.
- **0,8 milioi euro** inbertitu dira **5.000 biztanletik beherako aglomerazioetarako saneamendu- eta arazketa-planean.**
- **352.810 euro** hegazti-faunari kalterik ez eragiteko linea elektrikoak zuzentzeko erabili dira.
- **5,0 milioi euro** eman zaizkio **MUBIL mugikortasun-zentroari**, jarduera, zientzia eta ezagutza adimentsu eta jasangarria garatzeko espazioari.



- **Garoñako Bidezko Trantsizioko Hitzarmena** egiteko jarduera-protokoloa sinatu da.
- Euskadik honako hauek jaso ditu:
  - **25,2 milioi euro, FEADER Trantsizioa** funtsetatik
  - **7,5 milioi euro FEADER EURI** funtsetatik
  - **10,2 milioi euro, FEAGA** funtsetatik

### **Kultura sustatzea eta ondarea babestea**

- **2,8 milioi** euroko diru-laguntzak gauzatu dira **arte eszenikoen, ikus-entzunezkoen eta arte ederren kultura-sektorean** sartuta.
- **17.394 euro ondare historikoko hainbat elementu kontserbatzeko eta zaharberritzeko jarduketetarako** erabili dira.
- **Donostiako San Telmo Museoak** Acción Cultural Española-k egindako **“Bidaia luzeena”** erakusketa hartu du, Magallanes-Elkanok duela 500 urte lurrerako lehen nabigazioan egindako balentria kontatzen duena.
- **5,5 milioi euro, Donejakue Bideetako turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko, Xacobeo 2021-2022 turismo-plan nazionalen.**
- **0,8 milioi euro** Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen denboraldiaren garapena diruz laguntzeko.

### **Datu eguneratuak 20212021eko uztailean**

- **35,2 milioi euro hezkuntza-sistema digitalizatzeko.**
- **3,1 milioi euro** bideratu dira Europako funtsetatik datorren **PROA+** hezkuntza indartzeko programarako.



- **0,8 milioi** euro inbertitu dira MRR funtsetatik euskal biztanleentzako **laguntza- eta orientazio**-unitateetarako.
- **8,3 milioi** euro BEEP funtsetatik bideratu dira Euskadin **biodibertsitatean, uretan eta ingurumena** lehengoratzeko inbertsioetarako.



GOBIERNO  
DE ESPAÑA